


AUTOA



Gidatu modu eraginkorrean, erabili **martxa luzeak** eta zirkulatu **bi-raketa-abiadura txikian: % 15eko** aurrezkoa lortuko duzu erragaian eta CO₂ isurketetan.

0

Ba al zenekien...

martxa engranatuan orduko 20 kilometrotik gora zirkulatuz, azeleragailua zapaltzen ez baduzu, erregai kontsumoa hutsaren parekoa dela? Baina kontuz, ralentian autoak orduko 0,4 eta 0,9 litro bitartean kontsumitzen ditu.

Bioetanol izenez ezaguna den bioerregaiak gasolina kontsumoa murrizten du, jatorri **begetalekoa** da eta **“e”** bat eta duen bioetanolaren **ehunekoa** (5, 10...) ditu adierazgarri. Gasolina erabiltzen duten auto guztiek onartzen dute, gutxienez, % 5eko nahastea.

€

Zirkulatzeko orduan, saiatu ez eramaten **gehiegizko pisurik, kanpoko maletategirik, presio gutxiegi duten pneumatikorik, eta leihoak erabat jaitsita; aire girotua** erabiltzen baduzu³, aukeratu **23°C**-ko erreferentziako tenperatura (neguan eta udan), erregaiari % **25** gehiagoko kontsumitzea saihestuko duzu.

0

Gogoratu autoek ere energia-etiketak dituztela, borondatezkoak; aukeratu **A** edo **B** motakoak, auto arruntek baino % **15-25** gutxiago kontsumitzen dute.

€€€


Ba al zenekien...

trafikoko Zuzendaritza Nagusia (DGT) ibilgailuak egiten dituzten isurketa kutsatzaileen arabera sailkatzen ari dela? Zero, ECO, C eta B maila gisa identifikatutako 16 milioi daude jada.

Pneumatikoak aldatzeko orduan, aukeratu **ziurtapen energetikorik** handiena dutenak, erregai aurreztuko duzu, lur bustian itsaspen hobe izango duzu eta errodadura kutsadura akustikoa murriztuko duzu.

€€

³ Aire girotuaren erabileran ez bezala, auto berogailua erabiltzeak ez du erregai kontsumorik eragiten ia, motorrak funtzionatzean askatzen duen beroa aprobetxatzen delako.



1222/2009 - C1

Ba al zenekien...

*aurrezten duzun erregai litro bakoitzarekin
atmosfera 2,6 kilo CO₂ isurtzea saihesten duzula?*

Eta ibilgailuz aldatzeko asmoa baduzu, kontuan hartu honako hauek:

- Europako helburuak garraioa deskarbonizatzeko eta garraioaren isurketa kutsatzaileak murrizteko bidean doaz.
- Hainbat hiritan dauden ingurumen-arazo errealek bultzatuta, gehien kutsatzen duten autoen zirkulazioa mugatu egin da hirietan, zenbaitetan hirigunera sartzea ere debekatu egin da.

Horrelako eszenarioan, egungo teknologiek iraugitze-data dute, dieselak, gasolinak, PGLak... pentsatu kontzesionariora joan aurretik... Erosi etorkizuna duen auto bat!